

# Kristauak, kristau hutsak

eta

## kristau sozialistak

Hiru gauza dira kristauak, kristau sozialistak eta *Kristauak sozialismoaren alde* talde jakineko kristauak.

Kristauak ez dira denak sozialista. Ez dute zergatik izan. Kristau sozialista denek ez dute zergatik elkartu.


*Kristauak sozialismoaren alde* mugimendua beharrezkoa baldin bada, arrazoiak bi aldetatik sortzen dira. Kristauen aldetik: izan ere, kristau gutik usteko du honez gero, sozialismoa bekatu denik. Baina axolakaberiarik, zabarkeriarik, aurriritzirik eta errezelarik franko gelditzen da. Sozialismoaren aldetik: askotan sozialismoak ez bait du asmatu, kristaudentzat interesgarri agertzen. Aitzitik, maiz kristauak alfer-alferrik izutu eta ikaratu nahita bezala ibili da.

Horregatik izan litezke beharrezkoa *Kristauak sozialismoaren alde* taldeak: kristauak iratzartzeko eta sozialismoari aurpegi berririk emateko.

Taldeok, nik uste, kristauekin berekin izango dituzte lehenengo problemak. Politika egiten dutela eta, salatuko dituzte. Baina salaketaok egun ez dute atzo adina bildurtzen.

Salaketa okerragoa izango da bestea: kristautasuna murrizten dutela. Kristautasunaren alderdi soziala bakarrik hartzen dutela aintzakotzat. Testamentu Berriaren interpretazio alderdikoa egiten dutela, etc. Salaketa hori, denok dakigu, arrazoi guziarekin egiten dena da. Bakarrik: salaketa hortatik libre dagoen kristautasunik ez dago. Hori da dena. Jesukristo Jainkoaren Seme dela, aitortzen duenak, Testamentu Berriaren oso interpretazio alderdikoa egiten du halaber. Bere alderdikeriak ohartu ez bada, badu ohar-tzeko ordua. Ebanjelioek bere ere Jesukristoren eta haren mezuaren interpretazio alderdikoa eman digute, alderdikoirik bada. Halare, batzuek kristautasun *integral* baten monopolioa izan uste dute. Askok baino integratagoa dute, izan ere, beharbada. Baina arruntasunean gelditzeak eman ohi duen unibertsaltasunez. Sozialak dira, baina beren sozialtasunak ez du sekula forma konkretorik hartzen. Sozialismoaren forma, esate baterako. Kristautasun integral haren printzipio hutsen marfilezko dorrean distiratzten du beti, itzalik eta makarrik gabe. Hori, ordea, kristau-TASUNA da; ez haragi eta hezurrezko kristaun eginbiderik. Hori argia da; eta argia bera bezalakoxea izan zitekeen gizonik ez dugu ikusi, oin-orrazia lurraren gainean jartzen.

Kristautasuna murrizten ez omen duten horiek, kristautasuna predika diezagukete. Baina ezin esan diezagukete, predikazio horrekin zer egin gero. Ezer egiten hasi orduko murriztu egiten bait da kristautasuna, beste edozein printzipio bezalaxe. Eta, gure ustez, kris-



tautasunean printzipioak parte importantea, baina oso ttipiak dira.

*Kristauak sozialismoaren alde* mugimenduentzat okerrera zera izan liteke: indar hartzen ari dela ematen duen *Eliza hutsaren* mugimendua. Kristautasunak hainbeste aldiz hanka sartu eta eskuak zikindu dituenez gero, sekula gehiago eskuak zikinduko ez lituzkeen Eliza bat antsiatzen da. Eliza garbi, Eliza hutsa. Inorekin konprometatzen ez den Eliza... Ilusio gaiztoa eta arriskutsua iruditzen zaigu hori. Alegia, ilusio hori nondik datorren, edozeinek ikusten du. Ez dakiola berriro diktaturakoa gerta Elizari. Salduta aurkitzea. Beraz, zuzentasunik ez diogu nahi ukatu asmo horri. Guk ere halaxe izan behar duela, uste dugu. Elizak egin behar duena, ebanjelioa predikatzea da. Bai. Baina Eliza ez da Serafinen eta Kerubinen korurik. Eliza ez da ebanjelioa bera. Ebanjelioak berak interpretazio asko du. Eliza bera Eliza asko da batera, eta Eliza batzuentzat behintzat konpromiso gabeko existentziarik ez dago. Eliza perfektorearen ilusioa, gure ustez, Eliza mistiko bakarra-

ren ilusioa da. Eta, oker ez bagaude, heresi-historia luzetxo du horrek iadanik. Mundu honetako Elizak ez du Eliza mistiko perfektore izaterik. Eliza ez saltzearren galtzea litzateke hori.

Alternatiba ez da Eliza saltzea ala Eliza galtzea. Eliza *garbi*, *huts* hori —beti ere posibleen neurrian— non eta nola gauzatu, hori da problema. Elizako zein sektoretan; jokabideak finkatuz, nola jokatu.

Konkretoago: Elizak orain ez du Alderdiren batekin ezkontzerik, kristau deiturako Alderdirik balitz ere. Elizak ez daduka antikomunismoaren tresna bihurtzerik, etc. Hau da, Elizak politika guzien gainetik ibili behar omen du, ez edozein politikaren menpean. Hori azpimarkatzen da orain. Arrazoiz. Guzi hortan, haatik, intentzio on gehiago ikusten da, errealisimorik baino. Bildur gehiago, ebanjelioaren indarrak mundua aldarazteko ausardiarik baino. Zer Eliza da hori, politika guzien gainetik ibiltzeko, Jesukristo itsaso gainetik bezala? Elizak burruka latza eraman zuen liberalismoarekin. Zozokeria asko egin zuen. Baina gauza batetan arrazoi osoa zuen liberalismoaren kontra: Eliza ez da sakristian egoteko.

Ez dakit, baina soluzioak honelako bideren batetatik bilatu beharko dira agian, atzoko bekatuetan ez erortzeko: hierarkiak *Eliza hutsaren* erara funtziona beza, izan ere lehen-lehenik Elizari berari serbitzeko instituzgoa da eta (Eliza barnerako tresna); bestalde, kristau herriak egin bitza bere aukera politikoak, izpiritu kristauren eta bere konzientziaren arabera, libertate osoarekin, baina deliberoz eta konpromiso gogoz. Orobat, predikazioa izan bedi Alderdietatik independente, eta abar. Mailak eta sailak bereziaz, hortakoz, non zer eta zeinek nola egin. Eliza osoa goitik beheraino *Eliza huts eta garbi* itzultzeko ilusiorik gabe. Eta gero: zeinek bere itxura. Kolore guzietako kristauak. Eta ez kolore gabekoak.

Talde berezi bat sortzen dutela Elizaren barruan, eragotziko zaie, orobat, sozialismoaren aldeko kristauoi. Eta batasun izpiritu eklesiala urratzen dutela. Dagoeneko garbi dago, planteamolde edo ikusmolde kontua dela hori. Eliza batasun mistiko edo teologikoa batasun soziologikoz nahastena da, funtsean. Ebanjelioaren interpretazioan pluralismorik onartzen bada, pluralismo soziologikoa hau problema ez da. Bide-bidezko ondorioa da, hain zuzen.

Eragozpenok eta antzeko beste askok ezer guti esan nahi dute *Kristauak sozialismoaren alde* taldearen kontra. Oso ondo adierazten dutena besterik da: kristauekin izango dituzten problemak.

JOXE AZURMENDI